




Behin, bazüzün saintü bat eta
zinez kexü züzün, zeren eta
nehork ez ziozün otoitz egiten.




Jenteek otoiz egiten ziezüen
Jondane Betiriri, Jondane
Ttattoberi, Jondane Frantxuari eta
beste hanitxeri, bena hari deüsik
ez.




Hala, Jinkoari galtatü ziozün
bilküra baten egitez, eta harek
aholkatü ziozün ondoko zera :




Egin araziko dütüzü bisita txartelak
eta zabaltüko dütüzü mündü
zabalean. Gero, erranen düzü
miraküilüak egiten dütüzüla,
aitzinetik galtatürik balin badira,
prefosta.



Aldiz, ez ezazüla eman txartelik
astapitoer ez eta marimerkeer ere.
Ez ahantz: astapitoer eta marimerkee
ere ez.



Ordüan, Jinkoaren aholküer
jarraikiz, barreiatü zitizün bere
txartelak mündü zabalean, salbü
astapitoer eta marimerkeer.



Eta orai, saintü hau bilakatü düzü,
mündüko miraküilütsena eta
adoratüena.



Badakizüa nola deitzen den saintü
hau ?



Kasü, pentsü ezazü ontsa !



Zinez, ez dakizüa nor den ?



Zinez ?



Aahhhhhh ?



Ordüan... Ez düzü üken txartelik ?